

Bilboko manifestaziorako deia egin dute Ttipi-Ttaparen antolatzaileek

«Amnistiaren eskakizuna ideario politikoen gainetik dago» diote AABBk

Amnistiaren Aldeko Batzordeak, AJIR, CAR, Ahaideak eta Errefuxiatuen Aldeko Batzordeak datorren larunbatean Ttipi-Ttaparen bukaerarekin batera Bilbon egingo den manifestazio nazionalerako deialdia egin dute. Bestalde, aurtengo Ttipi-Ttapak jaso duen eta jasotzen ari den laguntza eta partaidetza zabala azpimarratu zituzten antolatzaileek.

M.A. / BILBO

Amnistiaren Aldeko Batzordeak (AABB) «amnistiaren errebindikazioak gaur egun inoiz baino zentzu gehiago» duela esan zuten eta datorren larunbatean Bilbon egingo den manifestazio nazionalerako deialdia egin zuten, «legalizatua» dagoela zehaztuz.

Amnistiaren eskakizuna «ideario, estrategia eta maltzurkeria politikoen gainetik» dagoela adierazi zuten AABBetako kideek, «normalizazio politikorako faktorea» dela gaineratuz. AABBetako partaideen iritziz, «amnistia, Euskal Herriaren nazio proiektu politikoen atea zabalduko duen giltza da». Horrela, manifestaziorako deialdia «abertzale sentitzen den guztiari» egin diote eta «Gobernu espainolak eta EAJK Ajuria Eneako hitzarmenaren buru bezala aurrera daramaten politikaren aurkako jarrera erakusteko ezinbesteko zita da larunbatekoa» azpimarratu zuten antolatzaileek.



Ipar eta Hegoaldeko bost erakunde dira Ttipi-Ttaparen antolatzaileak. J.SIMAL

rratu zuten antolatzaileek. 513 euskal preso politikoa, 1600 errefuxiatu baino gehiago eta 53 deportatuek «hamalau urtetako erreforma demokratikoaren balantze triste» direla azaldu zuten AABBetako ordezkariak. Balantze honek «zalantzan jartzen du Espainiaren inplantazioa eta legitimitatea Euskadin, eta baita euskal preso politikoen giza-eskubideen eskakizunak kontutan hartzeko gai ez diren instituzioak ere» AAB-Ben ustetan.

Hildo beretik jarraituz, Amnistiaren Aldeko Batzordeak Nazio Batuen Erakundeak (NBE) ateratako azken txostena gogoratu zuten. Bertan zehazten denez, askatasun demokratikoak betetzeari dagokionean, Espainia azkeneko postuetan dago Europan.

AABBetako ordezkariak EAJ alderdiaren jarrera salatu zuten, «Madriletik eta PSOEtik emandako agin-

duak bere osotasunean betetzeagatik, irtenbide negoziatuari atek ixten dizkiolako».

PARTAIDETZA ZABALA TTIPI-TTAPAN

Ttipi-Ttapa ibilaldian ematen ari den partaidetza eta laguntza zabalaren berri eman zuten antolatzaileek. Astebeteko balantzea egiteko orduan, bigarren edizioa betetzen duen ekitaldia «ekimen politiko sendoa» bilakatu dela azaldu zuten AABBetako kideek.

«Herriz herri euskal errepresaliatuen aldeko elkartasuna» jasotzen ari da Ttipi-Ttapa, antolatzaileek azaldu zuten, eta «gure Herriak jasaten duen errepresio egoera dela eta euskal gizarteak daukan ardura» erakusten ari dela azpimarratu zuten.

Bestalde, ibilaldi hau igaro den zenbait herritan Polizia Nazionalea eta Goardia Zibilaren presentzia salatu zuten AABBkoek.

Polizia baten autoan jarritako bomba indargabetu dute Basaurin

BASAURI

Polizia baten autoari erantsia zegoen bomba-pakete bat indargabetu zuten atzo goizean Polizia Nazionaleko artezilariek Basaurin.

Lehergailua kilo bat amosalez osatua zegoen eta Basauriko Axular kalean ikusi zuten langile batzuk, bertatik pasatzerakoan lehergailua askatu egin bait zitzaion autoari, Bizkaiko Gobernu Zibilak egierdian jakitera eman zuenez.

Polizia Nazionaleko agenteak goizeko zortzietan hartu zuen bere kotxea Axular kaletik gertu. Bost urteko bere alaba eta emakume bat zeramatzan berarekin. Martxan jarri eta metro gutxi batzuk ibili ondoren, autoari erantsia zegoen bomba-paketea erori egin zen, antza bidezulo batetik pasatzerakoan.

Polizia ez zen gertatutakoaz ohartu. Ordu t'erdia beranduago, hala ere, Axular kalean lanean zebiltzan langile batzuk paketea

ikusitako, eta bomba bat zela susmatu zuten, zenbait kable ikusten zitzaizkiolako.

Polizia Nazionalari abisua eman ondoren, bertaratu ziren agenteak lehergailua zela baieztatu ahal izan zuten, eta kalea inguratu zuten auto edo pertsonak pasatzea eragozteko. Bederatzi t'erdietan artezilaria talde bat iritsi zen bertara, bomba indargabetu ahal izateko.

Goizeko hamaika t'erdietan indargabetu zuten kilo bat amosalez osatua zegoen lehergailua, eta ez zuen eragin inolako kalterik. Eztanda eragiteko antimugimendu sistema bat zuten prestatuak, Bizkaiko Gobernu Zibilak adierazi zuenez.

Bere autoan lehergailua jarria zuten poliziaren nortasuna ez du ezagutzera eman Bizkaiko Gobernu Zibilak.

Polizia Nazionaleko artezilaria taldeek aurten indargabetzen duten hirugarren lehergailu edo bomba da atzokoa.

Oiartzunen atxilotuak gartzelan sartzeko agindua eman du epaileak

DONOSTIA

Ertzaintzak joan zen larunbatean Oiartzunen atxilotu zituen lau lagunak atzo goizean sartu zituzten gartzelan, Madrileko Auzitegi Nazionalerako epailearen aginduz.

Marka frantziarreko bost auto kontzesionarioen kontra atentatuak egiteaz akusatu dituzte lau gazte hauek.

Jose Mari Urkola Iriarte, Jose Mari Garmendia Bon, Asier Ormazabal Lizeaga eta Miren Arantzazu Ormazabal Beitia dira gartzelatutako gazteak. Lau gazte hauek Ertzaintzak atxilotu zituen larunbata goizaldean Oiartzungo auto kontzesionario batetik gertu, ustez su ematera zihoztuz.

Gasteizko Jaurlaritzako Barne Sailak dioenez, «preso eta errefuxiatuen aldeko talde bat» osatzen zuten joan den irailaz geroztik.

Erreterriako Ertzaintzako koartelak martxan jarri zuten segurtasun zerbitzu berezi baten ondorio izan ziren atxiloteta hauek, Barne saileko iturriek azaldu dutenez.

Erregaiekin bost atentatu burutzeaz akusatu dituzte lau gazte hauek. Atentatu horiek Astigarraga, Lasarte, Donostia eta Anoeta herrietan egin zirela azaldu dute Ertzaintzako iturriek eta 200 milioi pezeta (hamar milioi libera) inguruko kalteak sortu zituztela.

Atzo gartzeleratu zituzten lau lagunak Donostia eta Hernanikoak dira.

Lerro artean

Zuriaren esanahia



Anekdotak eta detaile sinomatikoaren artean tarte handia dago. Kazetaritzan zehaztasunak garrantzitsuak direla ezin da ukatu, egunkariak ez dira jite orokorreko esaldiekin osatzen. Gertaera baten kontakizunetan, albiste baten garapenean zehaztasunak ezinbestekoak dira, baina gertaerak berak eskatzen dituen neurrian, gertatu dena ulertzeko behar den neurrian. Gertaera guztiak ez dute zehaztasun neurri bera behar. Hala ere, politikagintzan, gertaera batzuk beste batzuk baino askoz emankorragoak dira detaileetan, nahiz eta muga batetik aurrera gehitu ahal den guztiak berriaren kontakizunari ezer ematen ez dion. Zer adierazten du, esate baterako, Legebiltzar bateko bost parlamentari zuri eta beltzez jantzita joateak? Ez da gehiekieria esatea, Iruñeko egunkariak, *Diario de Navarra* eta *Navarra Hoy*,

maila horretaraino heldu zirela, Nafarroako Legebiltzarreko Mahaia aukeratzeko ekitaldiarekin. Are gehiago, *Navarra Hoy* egunkariak «Anekdotak» izenburua zuten txoko berezi bat eskaini zuen. Bertan, Mahaia ze ordu zehaztuz osatu zen edo Javier Gomara zenbat aldiz aldatu zen jazarlekuz kontatu zitzaigun. Baita, foruzainek egunkarietako argazkiekin kontrastatu egiten zituztela parlamentarien agiriak irudiak. Anekdotak horrek, ordea, beste zerbait ere adierazten zuen: Zutoia Michel presoaren presentziak areagotu zituela kontrol neurriak. Beste maila batean, Satur Leoz, *Deiako* kronistak detaile bati sinptomaren kategoria eman nahi izan zion, analisi artikulua osatzean: «Boto zuriak, nabiganteentzako abisua?» izenburupean HBren boto zuriei esanahia atzeman nahian ibili zen: «Denak pentsarazi zuen, HBk Otano sozialistaren zain Gomara erregionalaren aurkako botoa emango zuela. Aitzitik, ez zen horrela izan. Bere

jarrera kasu honetan erabakiorra ez bazen ere, 'hirugarren bidea' aukeratu zuen: boto zuria». Detalean, ordea, ez zegoen sintomarik Mahaiko lehendakariaren aukeraketan, ezezko botorik ezin bait da eman. Ez zegoen «ez» edo «bai» jartzerik, baizik eta hautagaiaren izena (edo zuri utzi, edo baliogabekoa egin).

Kazetari/aholkulari binomioa maiztasun handiarekin ari agertzen egunotan. Atzokoa, aholkua *El Correo Español*eko Ramon Murren aldetik zetorren eta Ardanza lehendakariari zuzendu zitzaion: «momentua delikatu delako, premiazkoa da lehendakariak dei egitea Ajuria Eneara, akordio haren sinatzaileak diren euskal alderdi politikoen goi ordezkariak». Aholku bera egin zuen artikulugile honek martxoaren 22an. Ajuria Eneako Hitzarmeneko ordezkariak lau egun beranduago bildu ziren.

PELLO URZELAI

“Oiartzungo Lintzirin arean aparkalekuetarako plan berezia”

1991ko Ekainaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 107 zk.an, “OIARTZUNGO LINTZIRIN AREAN APARKALEKUEKUTARAKO PLAN BEREZIA” izeneko Proiektuaren behin betiko onarpena eman da argitara.

Iragarkian Proiektu honek hartuko dituen ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakaturak ere ageri da.

Donostia, 1991ko Ekainak 18.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Herrilan eta Garraio Departamentua